

Alferreko proiektu handi inposatuak, eta euren mundua

JULIEN MILANESI

Alferreko proiektu handi inposatuak, eta euren mundua

Julien Milanesi

- 4 Zer gara: herri ekologiaren jaiotza?
- 7 Non gaude? Interes orokorra krisian
- 9 Gure rola: ekologia demokrazian txertatzea?
- 11 Ondorioa



Dokumentuak 35

2016ko urria

www.mrafundazioa.eus

@mrafundazioa

Alferreko proiektu handi inposatuak, eta euren mundua

Julien Milanesi*

Lagun maiteak, alferreko eta inposaturiko proiektu txiki eta handien aurka-ko borroka kide maiteak:

Dagoeneko badaramatzat 10 urte baino gehiago zuekin; A65 autobidea bederatzi iturri dituen nire herritik, Baustenetik, igaroko zela jakin nuen 2005eko egun hartatik. Askotan bildu izan gara han, asteburu honetan bezalaxe, gure esperientziak, itxaropenak eta desengainuak partekatzeko, bateriak kargatzeko, gogoak altxatzeko eta, azken batean, elkarrekin momentu atseginak pasatzeko. 2010. urtetik autobide batek zeharkatzen ditu bederatzi iturriak. Galdutako borroka horri buruz film bat egin dugu Sophierekin, eta horri esker zuen alboan egon ahal izan gara igaro diren sei urte hauetan. Eta, bestela, ezer gutxi. Alferreko proiektu handien auzia nire irakaskuntzetan sartzeko aukera egin dut, baita haiei buruz ikerketa bat burutzekoa ere. Sarritan esaten diot neure buruari, ziur zuek ere esaten diozuela, beste zerbaitetan eman beharko nukeela nire denbora: lore-zaintzan, edo beste borroka-gai premiazkoago batzuetan adibidez. Baina bizitzak hementxe jarri nau, eta hementxe ikasi ditut hamaika gauza, hementxe erabaki dut kolektibo batean sartzea, eta, seguruenik, hementxe izan dezakete nire ekintzek nolabaiteko eragina. Eta, modu xumeago batean esateko, hemen jarri dezaket nik nire harri koskorra.

Eta gaurkoan jarri nahi dudan harri koskorra hamar urteko lagunartekotasun honen ondorioei buruzko balantzea egitea da, hain zuzen. Hasteko, gure mugimenduari buruzko zenbait azterketaren inguruko eztabaida piztu nahiko nuke, nola txertatzen den gure gizartea zeharkatzen duten eztabaida orokorragoetan, zer auzi estrategiko ditugun aurrean etorkizunari begira eta abar. Ez dut nahi pentsatzea azterketa horiek guztiak

* Julien Milanesi ekonomialaria da eta "L'intérêt général et moi" filmaren ekoizleeta-ko bat. Gaur argitaratzen dugun testu hau, "Alferreko proiektu handi eta inposatuen aurkako 6. Nazioarteko Foro"an egindako bere parte-hartzeari dagokiona da. Foro hau Baionan ospatu zen 2016ko uztailaren 15 eta 17a bitartean.

nik eginikoak direnik; izan ere, asko eta asko zuekin izandako eztabaiden ondorio dira. Batik bat laburpen bat egitea da nire asmoa gaur, edo ideiak zertxobait antolatzea eta zuekin eztabaidatzea.

Hortik hasiko naiz, alferreko eta inposaturiko proiektu handien eta txikien aurkako mugimenduen egungo dinamika aztertzeko; ondoren, saiatuko naiz azaltzen zergatik kokatzen den gure mugimendua seguruenik bateragaitzak diren munduari buruzko ikuspegiaren arteko gatazken erdierdian. Gero, guztiontzat zentrala den demokraziaren auziaz jardungo dut. Amaidetako, gure mugimendua garatzeko bi ardatz proposatuko ditut.

Zer gara: herri ekologiararen jaiotza?

Hasteko, gure mugimenduak azken hamar urteetan izan duen bilakaera gogorarazi nahi nuke. Argi dago zuetako askok denbora askoz ere luzeagoa daramazuela borroka honetan, eta historia luzeago batez hitz egin beharko genukeela. Gurea baino lehen, izan dira beste borroka batzuk, bereziki antinuklearrak, Larzac, Somport. Gure ondarea dira, baina nik historia berriago bat eskaintzen saiatu nahi dut, nik neuk zuzenean ikusi ahal izan dudana. Zuen esku uzten dut hori osatzeko aukera.

Duela 10 urte A65 errepidearen aurka hasitako borroka benetako bakardade momentu bat izan zen. Zuetako batzuk, esan bezala, gure alboan zineten, baina gure zirkulu txikitik harago, gure borroka ez zuen indiferentzia besterik eragiten. Indiferentzia ezjakintasunarekin eta hedabide nagusi gehienek berriazko interesarekin nahastuta, harik eta Hervé Kempfek proiektuaren alderdi finantzarioei orri oso bat eskaini zien arte, Le Monde egunkarian. Indiferentzia baita ingurumenaren babeserako erakunde handien aldetik ere, horietako gutxi batzuk kenduta, gehienek ez baitzuten begi onez ikusten horrelako borroka txiki eta lokaletan –are probintzietan– sartzea. Mespretxuz tindaturiko indiferentzia klase politikoaren aldetik, ez baitzuten gure mugimenduan NIMBYs¹ besterik ikusi nahi, edo, bestela esanda, bertako biztanleok berekoikeria baino ez.

Jabetzen naiz zeuen buruei esaten diozuela hori ez dela askorik aldatu, horixe dela egunero zuzenean bizi duzuen. Hala ere, nik uste dut egoera desberdina dela. Hasteko, lortu dugu eztabaida publikoan termino berri bat sartzea, GPII delakoa (Grands Projets Inutiles et Imposés, Alferreko proiektu handi inposatuak) hain zuzen ere, eta horrek aldatu egin

1 NIMBY (Not in my back yard): bai, baina hemen ez.

du gure borroken egoera eta pertzepzioa (nire eskerrik handienak proposamen horri, akronimo hain zehatz hori sortu zuenari edo zutenei). Termino horrek seigarren urtez jarraian lortu du gu biltzea eta gure borrokek bateratzea (itzuliko naiz gai honetara), eta gainera, gure borrokek interes berekoien ordeztu, munduari eta etorkizunari buruzko ikuspegiekiko desadostasun sakona erakusten duten ideia mahaigaineratu du (itzuliko naiz hona ere).

Notre Dame des Landeseko borroka, bere izaera enblematikoaren eta piztutako mobilizazioen hedaduraren ondorioz, proiektu horien aurkako konpromiso handiago eta argiagok hartzera eraman ditu oraindik halakorik egin ez zuten ingurumenaren babeserako elkarte handiak.

ZAD (Zone à défendre) direlako babestu beharreko guneez, noski, borroka-lekuen gaineko egoera estrategikoa aldatu dute. Erakutsi digute bulldozer administratiboa geldiaraz genezakeela beren gorputza zeharka jarrita. Lezioak itxaropenerako tartea irekitzen du, garaipenak ere izan ditzakegula pentsa dezakegu, baina tragedia ere ekarri du; orain badakigu Estatuak, egoera horretan, arma hilgarriak erabiltzen dituela gure aurka.

Beste berritasun bat, eta hau ere azpimarratu nahiko nuke, proiektu txiki edo handien aurkako borroka biderkatu direla da. Duela zenbait hilabete, gure filma (L'intérêt général et moi) estreinatu zenean, alferreko proiektuen Frantziako Tourra egin genuen: Tosseko 51 zuloko golfa, Landetan; Saint Etienne eta Lyon arteko A45 errepidea; A51a Trièves eskualdean; Ageneko parke teknologikoa; Euskal Herriko meatze proiektua; harrobia Mila Aintziren Lurraldean, Vosgeetan; Paue-Oloroe errepidea; Roybon eta Casteljalouxeko opor parkeak; Sivenseko presa; hego mendebaldeko abiadura handiko LGV GPSO proiektua, eta Notre Dame des Landeseko aireportua. Baina, zerrenda hau egun Frantzian abian diren proiektuen lagin txiki bat besterik ez da. Ez nago ziur orain mota honetako proiektu gehiago dagoen lehen baino, halakoak entzuten diren arren; gauza da orain ikusi egiten ditugula, eta hori da berritasuna, mota guztietako aurkako erreakzioak eragiten baitituzte. Herritarrak antolatzen hari dira han eta hemen proiektuon aurka egiteko. Gaur egun ezin da hormigoirik bakean bota Frantzian. Albiste benetan ona, bestetik.

Borroka horien biderkatzean neronek herri ekologia gisa bataiaturiko mugimendu bat ikusi nahi izaten dut nik (nire izendapena zalantzan jarri daiteke, noski), edo, zehatzago esanda "ekologia politiko herrikoa". Zergatik?

Badakit zuetako zenbaiti, geuk osaturiko elkartean eta taldeen barruan, nolabaiteko erreparoa ematen dizuela zeuen burua ekologizatzen jotzeak.

Hala ere, horixe da gure borroken funtsa. Ekologia XIX. mendean sorturiko zientzia bat du jatorrian, izaki bizidunen elkarrekiko mendetasuna eta haiek beren ingurunearekin duten harremana aztertzen dituenena. Oinarri dituen jakintzak aintzat hartuta, ekologia politikoa, azkar esateko, giza-kiak bere ingurune naturalean betetzen duen rola eta gainerako izaki bizidunekin dituen harremanak zalantzan jartzen dituen mugimenduak definitzen ditu. Eta, bestetik, horixe da guk geuk egiten duguna gure lurraldeak GPII direlakoen harrapaketaen aurka defendatzen ditugunean. Sarritan landagunean kokatutako gure lurraldeetan ikusten dugu gaur egun, eta aurrez aurre, abian den krisi ekologikoa. Hortxe ikusten ditugu ibaiak eta errekek, baina ezin dugu jada arrantzarik egin bertan, pozoitzerik nahi ez badugu; hortxe ikusten dugu herriek nekazaritzako gure lurrik onenak nola marraskatzen dituzten; soroak erreta ikusten ditugu, herbiziden ondorioz, eta ezagutzen dugu produktu horiek bizi guztian arnastearen poderioz gaixo dauden herrikideak ere; ez da karramarrorik ageri jada, ezta uhandre edo dortokarik ere, lehen, mutikoak edo neskatoak ginela, arrantzatzen edo zirikatzen genituen lekuetan. Gure lurraldearen eta gure bizimoduaren galera ikusi eta bizi dugu. Eta nahikoa da, kokoteraino gaude. Aski dela erabaki dugu.

Hortaz, ekologistak gara, definizioz. Eta ekologista herrikoiak, gainera; izan ere, gutako asko ez gatoz ekologia teoriko eta jakitunetik. Argi dago gure artean ere badirela, ni barne, Gorz, Charbonneau, Ellul, Passet, Latouche, Illitch, eta beste batzuen irakurleak. Baina tradizio politiko edo filosofiko desberdinetatik harago, elkartzen gaituena aipatu berri dudana kokoteraino egoteko sentsazio hori da. Proiektu horien ondoan bizi garen gutako askorentzat haien aurkako borroka da konpromiso nagusia. Eta ez dago militantzian egon beharrik, edo adierazitako egile guztiak irakurri beharrik, lurraldeen galera sentitzeko eta hori geldiarazi nahi izateko. Gure konpromisoak esperientzia sinple horretan oinarritzen dira, erasotzen gaituzten proiektu horien aurkako erreakzio osasungarrian, emozio eta urgentzia horretatik edaten dute.

Baina, dena ez da emozioa, Victor Pachonek Nérac-en esandako hitzei heltzearren: badakigu irakurtzen, idazten eta zenbatzen. Ez dago eskola politeknikora joateko beharrik ulertzeko, adibidez, krisi klimatikoa arazo larri eta urgentea bada, autobideak eta aireportuak eraikitzeak ez duela inolako zentzurik.

Hortaz, ekologia herrikoia jaiotza gara gu. Eta ekologistak gara gure mugimenduek bizi garen lurraldeen defentsan dutelako jatorria; herrikoiak,

biltzen gaituena ez delako dotrina bat, baizik eta sentimendu bat, erremin bat, gure jatorri sozialez harago doan kontzientzia-hartze komun bat.

Non gaude? Interes orokorra krisian

Zer garen definitzen saiatu ondoren, saia gaitezen adierazten non gauden, nola txertatzen diren gure mugimenduak egun gure gizarteak zeharkatzen dituzten eztabaidetan.

Gure konpromisoak, arestian esan bezala, lurraldeetan txertatuta daude. Bizi garen lekuetan, aurrez aurre ikusten dugu proiektu txiki edo handi horiek aurrera ateratzeko egin behar diren sakrifizioen tamaina izugarria. Galtzera goazena begiztatzen dugu, proiektu horien kostu gehiegizkoa ezagutzen dugu (adibidez, 20 milioi euro abiadura handiko linearen kilometro bat eraikitzeko), eta geure buruari galdetzen diogu benetan merezi duen. Eta galdera bota dugunez, hau da, zein den proiektuon erabilgarritasuna, interes orokorra da zalantzan jartzen duguna.

Kontzeptu bitxia interes orokorra. Antzematen dugu haren indarra, izaera preskribatzailea eta, hala ere, ameskeria balitz bezala desagertzen da hura ukitzen saiatzen garenean, hura heltzen, definitzen... Berez, gure komunitate politikoek sortzen dituzten gauza asko bezala, interes orokorra fikzio bat da, guztiok harengan sinesten dugulako bakarrik existitzen dena, baina berez inolako funtsik edo substantziarik ez duena, eta hortaz, definitu ezin dena. Gauzak interes orokorrekoak dira bakarrik guztiok ados gaudenean eta onartzen dugunean gure intereserako direla, eta ez bagaude ados, ba ez dira interes orokorrekoak. Beraz, interes orokorra ere krisian da, horixe da egun gertatzen dena.

Zehaztasun handiagoz hitz egiteko, 50eko edo 60ko hamarkadan, berreraikuntzaren eta, ondoren, lehenengo autobideen garaian, mundu guztia –edo ia– proiektu horiekin ados zegoenean, eta ondoren, abiadura handiko lehenengo lineak eraiki zirenean, interes orokorra nahiko ondo definituta zegoen.

Gaur egun, kontzeptua krisian da, ez dago guztiok ados egotea eragingo duen interes orokorrik, aldiz hainbat interes orokor daude, edo, bestela esanda, interes orokorra ulertzeko hainbat modu, munduaren eta etorkizunaren hainbat ikuspegirekin bat egiten dutenak.

Badakit ez dizuedala ezer berririk esaten baina, bizi dugun une hau krisi sakoneko momentua da mendebaldeko gizarteetan: krisi ekonomikoa, soziala, ekologikoa, eta hortaz, baita politikoa ere. Krisia, etimologiarri erreparatuz gero, egoera batetik besterako trantsizio une erabakigarria

da. Une kritikoa. Eta beraz, guri, XXI. mende hasierako gizakioi, dagokigu hainbat erabaki hartzea, mundua hurrengo hamarkadetan, edo agian mendeetan, zer izango den baldintzatuko dutenak. Eta aukera horiek ezin hobe hezur mamitzen dira GPllen gaineko erabakietan:

- Ekologiaren auziari dagokionez, hasteko, pentsa dezagun lehen bezala jarrai dezakegula, proiektu berekin, ingurumen konpentsazioaren gainean kontatzen biodibertsitatearen gaineko eragina mugatzeko; aurrerabide teknikoan CO2 isurketak murrizteko; geoingeniaritzan klima aldatzeko noizbait zoratuko balitz eta, azkenik, transhumanismoan gizakiak biziraungo ez luketen planeta batera egokitzeko. Edo kontrakoa; pentsa dezagun erronka ekologikoen aldaketa sakon bat eskatzen dutela gure ekoizteko moduei, bidaiatzeko moduei, etxebizitzak ulertzeko moduei, elikatzekoei, eta gure jarduerak biosferan (planetan), haren legeetan eta mugetan txertatzeko moduei dagokienez. Kasu horretan, biodibertsitatea suntsitzen duten proiektuak, nekazaritzako lurrak kontsumitu eta CO2 isurketak eragiten dituztenak, berehala geldiarazi beharko genituzke.
 - Pentsa dezagun, aurreko puntuarekin lotuta, gure horizonte ekonomiko bakarra hazkundera dela, azken mendeetan izan den bezala: ekoizpen materialaren hazkundera, baliabideen erauzketarena, mugikortasunaren hazkundera, abiadurarena, zirkulazioarena? Eta, pentsa dezagun, gainera, auziari buruz izan dezakegun nahitik harago, aukera hori oraindik errealista dela herrialde aberatsetako hazkundera hainbat hamarkadaz behera egiten jarraitu duen honetan. Aukera hori zentrala da; izan ere etorkizuneko hazkunderari buruz nahi dugunak, edo egiten dugun aukerak, zuzenean mugatuko baititu garraioarekin edo supermerkatuarekin loturiko barne proiektuen oreka ekonomikoari dagokionez egiten ditugun aurreikuspenak. Zirkulazioaren eta kontsumoaren hazkundera ekonomia globalaren hazkundera baldintzatzen du zuzenean, barne produktu gordinaren hazkundera. Aldiz, moteltzearen alde egiten badugu apustu, eta, beraz, bizitzaren, elikaduraren, joan-etorrien eta abarren kalitatea bilatzen badugu, dauden azpiegituren hobekuntza bultzatuko dugu, azpiegitura berriak eraikitzearen alde egin ordez.
 - Pentsa dezagun hirugarren aukera batean; mundializazio liberala eta lurraldeen arteko lehia ezinbestean onartu behar dugun patua dela, eta egokitu egin behar dugula, jarduera guztia hiriko megagune lehiakorretan kontzentratuta, enpresak eta eskulan mugikor eta
-

kualifikatua erakarrita, haien premiei erantzuten dieten garraio azpiegituren bitartez. Edo bestelako eredu bat nahi dugu, non jarduera ekonomikoak, direla nekazaritzakoak, industrialak edo merkataritzakoak, birkokatu egingo ditugun, lurraldeetan banatu, eta lotura sozialen ehun trinko bat eraiki? Batik bat garraio azpiegitura kolektibo, hurbileko eta kalitatezkoak behar dituena?

- Lurraldeak garatzeko erakartze lana egin behar dela uste dugu? Beste leku batean sortutako mozkiniei esker aberastu diren bezeroentzako golf esparru bat eraikita, adibidez? Edo dinamika ekonomiko endogenoak, lurralde barnekoak, sortzearen alde egin nahi dugu?
- Ondoan bizi direnentzako eta munduko eliteentzako, golf esparruen bezeroentzako, antolaturiko mundu bat nahi dugu, haien aberastasuna, tantaka-tantaka, piramidearen behealdean daudenei iritsi dakien? Edo nahiago dugu diru publikoa hurbileko garraio eta ekipamendu publikoetara bideratu, askoz ere jende gehiagoren eguneroko mugikortasuna hobetzen duten horietara?

Ekologia, hazkundea, mundializazioa, tokiko garapena, desberdintasunak, hortxe dira, haiei loturiko auzi teknikoek harago, guk garaitu nahi ditugun GPII gehienak zeharkatzen dituzten funtsezko erronkak, hortxe gure borroken bitartez planteatzen ditugun aukerak. Aukera horien artean, non kokatzen da interes orokorra? Tentagarria litzateke esatea gure aldean dela, eta lehia egiten diguten ikuspegiaren interes pribatuak argi daudela. Baina, nire ustez, akats bat litzateke pentsatzea interes pribatu harrapariei bakarrik egiten diegula aurre. Guri dagokigunez, badaude interes orokorrari buruzko ikuspegi koherenteak, benetan aintzat hartu beharrekoak haiei eragin-kortasunez aurre egiteko.

Gure rola: ekologia demokrazian txertatzea?

Beraz, interes orokorra krisian da, erabat desberdinak diren bi ikuspegiaren artean kolokan, eta orain garatu nahiko nukeen ideia zera da, gaur egun ez ditugula krisi horri konponbidea eman ahal izateko beharrezko erakunde demokratikoak, eta horrek azaltzen duela gure borrokei dagokienez antzematen dugun tentsioaren eta indarkerien gorakada.

De Gaulleren eta Pompidouren Frantzian jaio zen herrialdeko autobide sarearen programa. Ni ez naiz garai hori bizitakoa, Giscardekin jaio bainintzen, baina zalantzan jartzen dut garai hori egungo gure sistema politiko bano demokratikoagoa izan zenik (gurea ere ez den arren). Ia ziur

esan dezaket ez zela hain demokratikoa izan, artean ez baitzegoen galdeketa edo eztabaida publikoak egiteko prozedurarik. Baina, garai hartan ez zen mahai gainean jartzen demokraziaren auzia proiektu handiei zegokionez; izan ere, erabakiak adostasunaren ondorio baitziren (edo ia, aintzat hartzen baditugu hogeita hamarreko hamarkada oparoan eginiko triskantzak salatu zituzten igarle gutxi batzuk). Guztiok ados gaudenean ez dio axola nola hartzen ditugun erabakiak.

Gaur egun ez dago halako adostasunik, eta gure konpromisoaren bitartez, presiopean jartzen ditugu proiektu horien gaineko erabakiak antolatzeko erantzukizuna duten erakunde ofizialak: eztabaida publikoa, galdeketa publikoa, erabilgarritasun publikoko adierazpena ministroaren aldetik. Erabaki-esparru hori haustear dago guk egiten diogun presioaren ondorioz.

Demokrazia deliberatiboaren muga guztiak erakutsi ditugu galdeketa eta eztabaida publikoen jolasa muturrera eramanda; gaur egun zarata egitea lortu dugu, baina oso gutxitan entzuten gaituzte. Hala ere gauzak zertxobait mugitu dira; horren erakusle da galdeketa publikoen batzordeak LGV GPSO (hego mendebaldeko abiadura handiko linearen proiektu handia) proiektuari buruz iritzi negatiboa eman ondoren Richard batzordean eskaini ziguten entzunaldia.

Horretaz gain, joko juridikoan ere sartu gara, sarritan itxaropen handiak jarrita administrazio juridikoaren maila gorenean, hau da, Estatuko Kontseiluan, eta duela gutxi zuzenbide publikoko irakasle lagun batek gogoratzen zidanaz jabetu gara: haren zeregina erabaki publikoak legitimatzea da batik bat. Esparru horretan ere zerbait mugitu dela argi dago, Poitiers Limoges-eko AHTari eta Sivensekoari buruzko erabaki berrienei erreparatzen badiegu.

Nire ustez, aurrerapen txiki horiek erakusten dute aldaketak gertatzen ari direla goi administrazioan, zeina, bereziki garraioarekin loturiko proiektuei dagokionez eta urte luzetan idatzitakoarekin bat, ekipamendu berrien aurka baitago, gero eta gehiago. Eta horixe itxaropen arrazoia da gure mugimenduarentzat.

Baina, azkenean, zenbait aurrerapen egin badira ere, konturatu gara, esperientziak erakutsita, galdeketarako eta errekurtsorako prozedura guztiez harago, gure erakundeen egiazko izaera bertikala dela: demokrazia ordezkatzaille bat da, eta interes orokorra zer den eta zer ez erabakitzeo ahalmena sufragio unibertsalak boterez hornituriko hautetsien esku gertatzen da.

Edo, bestela, aurkikuntza edo jabetze hori, hautetsiekiko mesfidantza izugarritzko une batean iritsi da: agintaldien metaketa, profesionalizazioa,

ustelkeria, abstentzio masiboa, uko egiteak eta gehiago, eta horrek guztiak haiek hartutako erabakien deslegitimazio sakon batera garamatza. Erregea biluzik dago, eta zail egiten zaigu bere erabakietan inposaketa ez den zerbait ikustea: erabakia inposatu egiten digute, zenbait kazike bizkarrorien kapritxoan mende dago.

Eta egiaztapen horrek honako paradoxa honetara garamatza: garrantzi itzeleko erabakiak ditugu hartzeko, hamarkada luzez konprometituko gaituztenak, baina ez dugu haiek hartzeko behar adina legitimaturiko erakunde demokratikorik. Horrek okerrera egiteko aukerak handiak dira, eta nire ustez, gogoeta sakona egin behar dugu horri buruz, modu arduratsuan jardun ahal izateko.

Baina gatazkak demokrazia onbideratzeko ere balio dezake. Bestalde, ez dago, edo ez da inoiz egon demokrazia idealik, burutu gabeko amets bat da hori, eraikitzeke dagoena. Eta hemen, historia honetan kokatzen gara gu eragile gisa, ekologia demokrazian sar dadin lortzeko. Gu gara herrialdeko lau edo bost tokitan ekologiaren auzia modu konkretuan planteatzen duen gizarte mugimendua, gizartea mugitzera behartzen duena, erabakitzeko beste modu batzuk irudikatzen behartzen duena gure bizi ingurunearen hondamen etengabekoa gera dadin lortzeko. Gatazka sortzen dugu lehen ez zegoen lekuan, eta gatazka horrek aldatzera bultzatu behar ditu erakundeak. Demokrazia sozialak –hau ere oso inperfektua–, enpresaren munduan oraindik sartzea lortu ez duen arren, gure gizarte segurantzako sistema kudeatzen du. XIX. mendeko fabriketan hasitako mende bateko gatazken fruitua da. Lor dezagun, guk sorturiko gatazken bidez, bere garaian fabrikak auzi sozialarentzat izan zirena izan daitezela lurraldeak ekologiaren auziarentzat.

Ondorioa

Amaitzeko eta ondorio gisa, lehendik ere sakon jorraturiko bi ekintza ardatz proposatu nahiko nituzke.

Jabetzen naiz pentsatuko duzuela geure burua benetan garena baino askoz ere ederrago eta indartsuago ikusten dudala. Agian arrazoi duzue, baina badakit, halaber, borrokan eta ezbeharrean murgilduta gaudenean benetan garena baino ahulago ikusi ohi dugula geure burua.

Filmaren inguruan eginiko topaketetan, elkarteek honakoa esaten didate sarri: “Hogei edo hogeita hamar gara, gogorra da, ezerezari eskaintzen dizkiogu gure sermoiak”. Honakoa esan zidaten bart: “A45aren aurkako azken manifestazioan 1000 besterik ez ginen”. Nire ustez ez dago

gaizki, gustatuko zitzaigukeen guri mila pertsona izatea A65aren aurkakoan! Baina, batez ere gure lurraldeetan zentratuta gaudelako ikusten ez duguna da deszentralizaturiko gizarte mugimendu bat garela. Hogeia gara hemen, beste hogeia han, eta han, eta han, eta nire ustez, gizarte mugimendu koherente eta batu gisa azaltzeko egin behar dugu lan.

GPllen aurkako ekintza nazionalako jardunaldiaren garapena une egozia izan daiteke gizarte mugimendua lurralde osoan banatuta dagoela erakusteko; horretarako, lurralde osoan koordinatu eta antolatu behar dira ekintzak.

Ideien eta estrategien arloan, gure lanak bateratzen ere saia gaitzke, sare tematikoak garatuta: PPP, biodibertsitatea, baliabide juridikoak, eta abar. Zergatik ez antolatu, adibidez, urteko forumaz gain, edo harekiko paraleloan, edo haren ordean, udako unibertsitate baten antza izango duen zerbait, mugimendu barrura zuzendua, lan saio tematikoetara, esperientzia trukean oinarrituriko prestakuntzara, edo kanpo esku-hartzeetara...?

Argi dago aurreko guztiak baliabideen gaia azaleratzen duela, giza baliabideena zein finantzarioena, eta egitura nazionalak, ingurumenekoek eta sindikalek horretarako eman diezaguketen babesaren auziaz ere hausnartu behar dugula. Edonola ere, gure sarea indartu beharra dagoela uste dut, hala gure borroka lokalak indartzeko.

Geure burua indartu behar dugu indar hori aurrez aurre ditugun interes handienetara helarazteko itxaropenez. Baina ez da nahikoa izango, iruditeria baten aurka ere ari baikara borrokan. Gure herrikideetako askok partekatzen duten iruditeria, aurrerabidearena, sarri proiektu handiekin lotuta dagoena. Hori da guk aurkaratu nahi dugun munduaren ikuspegiaren euskarria, garaitu nahi ditugun ideologiaren, baina, tamalez, ezin dugu haiekin eztabaidatu, nolabait "irrazionalak" baitira. Bi mendeko garapen ekonomikoaren eta industrialaren emaitza dira, betetako promesarena; hau da, gorabeherak gorabehera, oparotasuna hazkunde ekonomikoaren ondorioa dela, mota guztietako azpiegiturak ekoiztearen ondorio. Errepideek, bakar bat aipatzearen, berezko duten erabileraz harago, modernotasuna landagunera eramaten duten ideia eragiten dute oraindik, hala gizakiak elkarrekin konektatuz, trukeak ahalbidetuz.

Baina promesa hiltzorian da. Berrogei urte daramatzagu izugarritzko lan-gabezia tasekin, nahikoa da ikustea Landetako Kontseilu Orokorrek ez duela 51 zuloa golf esparru bat eraikitzea baino gauza hobeagorik aurkitu lurralde garapenerako proiektu nagusi gisa, ziklo baten amaieran garelako ulertzeko.

Zer imajinazio falta! Horrenbeste gauza daude egiteko... Ekoizteko, elikatzeke, alde batetik bestera joateko eta etxebizitzak ulertzeko gure moduak erabat aldatu behar ditugu, suntsitu duguna konpondu beharra dugu. Enplegu iturri itzelak daude, baita proiektu kolektibo zirrarragarri bat ere.

Nire ustez, hazkundearen bidezko oparotasunaren iruditeria ekonomiko zaharraren aurka borrokatzeko, iruditeria alternatibo bat proposatu behar dugu, trantsizio ekologikoarena, esaterako, eta errealista eta desiragarria dela erakutsi.

Helburu horri lotuta dago duela zenbait urte Alternatiba mugimendua, Baionan jaio arren Frantzia osotik eta mundu osotik barreiatu dena. Arlo horretan, beren borroka gure borroka ere bada, eta amaitzeko, haien eslogana berrerabiliko dut: 1000 GPllren aurrean, 1000 Alternatiba!

